

IRUNGO EMAKUMEAK PLAZARA

LEIRE LANDA IROZ

Irun 1986

Nor da:

Futbolean jolasten eman du gaztaroa eta Estatu espainoleko talde onenetan ibili da. Nortasuna, lehiakortasuna, ausardia eta sakrifizioa ditu kirolean ezaugarri, eta baita hortk kanpo ere.

Txingudi ikastolako patioan, lagunen artean, eman zizkion lehen ostikoak baloiari, bederatzi urterekin minbiziak gaixotu eta erietxera eraman zuten arte. Burki-ten linfoma jasan zuen umetan eta esperientzia horrek bizitza markatu zion. Hortk datorkio, adibidez, 23. zenbakiarekiko atxikimendua. Izan ere, ospitalean zela ezagutu zuen Ivan de la Peña Bartzelonako jokalaria. Burusoila zen Ivan eta hala zegoen une horretan Leire. Ivan jokatzeko ikusi zenuenetk bera bezala Bartzelonan eta gorengo mailan jokatzearekin amesten hasi zen Landa.

Ordukt 23 zenbakia bizkarrean duen elastikoak lagundu du Leire. Realera 18 urte zituela heldu zen eta bost denboraldi eman zituen bertan. Realaren lehen neska taldean parte hartu zuen beraz.

Athletico Madrileren joan zen 2009an eta berriz itzuli zen Euskal Herrira, Athleticen eskutik.

2014ean lortu zuen Bartzelonan eta 23. zenbakiarekin jokatzeko ametsa. Hiru urte eman zituen Barçaarekin lehia.

Lesioek baina, bere ibilbide etetea ekarri zuten. Belauneko lotailu gurutzatua hiru aldiz hautsi zuen eta 2016/2017 denboraldi osoan jokatu ezinda egon eta gero, 2017ko uztailean Landak futbol mundua uztea erabaki zuen.

Non topatu dezakezu:

[Paseo interaktiboak](#)

[Irungo emakumeak plazara dokumentala](#)

Parean elkartea eta Gipuzkoako Foru aldundia

LEIRE LANDA

